

ONGI ETORRIAK

«Ongi etorriak Euskal Herrira. Eguerdiko 12ak dira bertako ordutegian eta 25 gradu zentigradu tenperatura oraintxe bertan. Begiratu, mesedez, ez duzuela zuena den ezer abioian ahazten. Eskerrikasko zuen bidaiarako *Euskal Air* konpainia hautatzeagatik eta hurrengo batean ere zuen konfiantza izango dugulakoan, komandantearen eta tripulazio osoaren izenean Euskal Herriaz goza dezazuen opa dizuet.»

Ez dut uste mezu hori entzunez euskalerriratuko zinetenik oporretatik bueltan. Hala ere, apustu egingo nuke zuetatik gehienak hegoaldeetik «nazional»-lean zehar sartu zaretela eta «Euskadi» dioen panel berdea ikusi duzuenean, aitortzeak lotsa pittin bat ematen badizue ere, emozio zirraratxo sentitu duzuela. Badakizue, «Home! Sweet home!» Ez pentsa lan handia izango litzatekeenik banan bana denei galdetzea; zenbat izango zarete ba, euskal herritarron artean, euskaraz jakin, euskaraz irakurri, «Euskaldunon egunkaria» erosi eta Kortaren zutabea letzen duzuenak? (Ez zarete asko izango baina bai onenak; saria merezi duzue denek.) Eta horietatik zenbat abuztu osoan zehar oporretan Euskal Herrikan kanpo izan zaretenak?

Tira, asko ez bazarete ere, izan zaitezte ongi etorriak etxera. Komandanteak bestelakorik esan nahi balizue ere, jakin ezazue, zoritxarrez, aurten ere ez dela iraultzarik gertatu oporretan zinetela. Ez iraultzarik ez historiara letra larriz pasatzeko moduko beste ezer. Beti bezala jarraitzen dugu. Eta badakizue. Hori batzuentzat txarra da («ezin dugu horrela segi») eta beste batzuentzat ona («segitzen dugu, beraz bagara»). Betikoa. Ikusten duzue ez daukazuela atzeratutako periodikuak begiratzen hasi beharrik. Tira, igoal merezi du gauza pare bat irakurtzeak: internetean aurki ditzakezue (<http://www.egunkaria.com>) abuztuaren leko eta 15eko zutabeak. Ongi etorriak Euskal Herri birtualera.